

Osoko bilkura

Bilbon, 2014ko urtarrilaren 31n

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lizundia, Jose Luis,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaburu, Pello,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Adolfo Arejitak ahala Jabier Kaltzakortari (11:30ak arte); Jose Irazu «B. Atxaga»k

ahala Andres Urrutiari; Miren Lourdes Oñederrak ahala Patxi Goenagari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan hasi da 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorrikoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela ezagutu eta gero, urtarileko Osoko batzarri hasiera eman dio eta eguneko egitaraua aurkeztu du. Osoko bilkura 12:30ean amaituko dela gogorarazi du, ondoren, Karmele Rotaetxe andrearen hilberri-txostena jendaurrean irakurtzeko.

1. Aurreko Osoko bilkuraren (2013-12-20) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

P. Goenagak 3. orrialdean paragrafo bat errepikaturik azaltzen dela nabarmendu du. Ondorioz, errepikaturik ageri den paragrafoa ezabatu egin da.

A. Iñigok 4. orrialdeko «Irailaren 26an, Osoko eta Ageriko bilkurak Nafarroan egingo dira.» pasartearen azken esaldia ordeztea eskatu du. Ondoko hau da proposatu duen testua: «A. Iñigok jakinarazi du Nafarroa Oinez dela eta, 2000. urteaz geroztik Nafarroako Ikastolen Federazioa eta urte bakoitzean Oinez antolatzea tokatzen zaion ikastola direla Euskaltzaindiari bertaratzea eskatzen diotenak. 2014ko Oinezi dagokionez, informatu du oraingoz ez dela eskaerarik jaso, ez Nafarroako Ikastolen Federazioaren aldetik, ezta Zangozako ikastolaren aldetik ere. Horregatik dio, harremanetan jartzen direnean eta egiten duten eskaeraren arabera zehaztu ahal izanen dela nolakoa izaten ahal den Euskaltzaindiaren presentzia». Testua ordeztea onartu da Osoko bilkuran.

M. Azkaratek, 6. orrialdeko bigarren paragrafoan, dimisioa eman duten Gramatika batzordeko kideen artean, bi izen falta direla nabarmendu du, I. Amundarain eta B. Fernandez kideenak, hain zuzen. Horien izenak ere jasotzea onartu da.

P. Goenagak 6. orrialdeko «A. Urrutiak jakinarazi du...» pasartearen azken zatia («... adierazpen zirriborroa Osoko bilkuraren karpeteri erantsi zaio.») ezabatzea eskatu du. Halaxe egitea erabaki da Osoko bilkuran.

J. L. Lizundiak 6. orrialdeko 5. paragrafoan bere ahoan jarrikoia ez dela zuzen jaso adierazi du. Horiek horrela, pasarte era honetara geratu da: «J. L. Lizundiak dio hori egitea ez dagokiola Zuzendaritzari, eta bestalde bozketa ez zela horrela egin behar, beraz, ez dator bat.

B. Oihartzabalek zail dakusa iritzia aldatzea. Aho batez egiten ez bada, ez du uste adierazpen hori egitea komenigarria denik.». Eginiko iruzkina onartu da.

B. Oihartzabalek, Idazkaritzara bidaliriko ohar idatzi baten bidez, 6. orrialdeko azken esaldiari oharra egin dio. Esaldia beste pasarte batengatik ordeztea eskatu du. Hona hemen: «B. Oihartzabalek esan du berdintasuna legezko mailari dagokiola; haatik, lantzen diren gaiei edo egiten lanei dagokiolarik, desberdinak izan daitezkeela euskaltzainak, gehienetan bakoitzak bere espezialitatea baitu. Haren ustez, orain arte hori kontuan hartua izan da, eta ez litzateke errealista orain, lanak antolatzerakoan, hori hala ez balitz bezala egitea.». Eginiko iruzkina ere onartu da.

Ondorioz, bestelako oharrak ez dagoenez gero, onartu da 2013ko abenduaren 20ko Osoko bilkurako bilera-agiria, egin zaizkion oharrak txertatu ondoren.

2. Ageriko bilkuretako (2013-01-25, 2013-11-29 eta 2013-12-20) bilera-agiriak onartzea, hala erabakiko balitz.

2013ko urtarrilaren 25ean eginiko Ageriko bilkurako bilera-agiriak iruzkinik jaso ez duenez gero, bere horretan onartu da. Era berean, 2013ko azaroaren 29ko

Ageriko bilkurako bilera-agiriari dagokionez, A. Toledok Karlos Otegi euskaltzain urgazlea urgazleen multzoan jasotzeko eginiko eskaria onartu da. Amaitzeko, 2013ko abenduaren 20ko Ageriko bilkurako bilera-agiriak iruzkinik jaso ez duenez gero, bere horretan onartu da.

3. Euskaltzaindiaren 2014. urteko behin-behineko aurrekontua aurkeztu.

Aurreko bileran egitekoa zena, baina kudeatzailearen gaixotasunagatik ezin egin, aurkeztu du oraingoa J. Zabaletak, eta 2014ko aurrekontuaren hasierako proposamena, 10 orriko txosten batean, paperean banatu du euskaltzainen artean. Era berean, proposamen hori pantailan proiektatu da. Hor 1) Diru-sarrerak, 2) Gastuak eta 3) Gastu eta Irabaziak atalak azaldu dizkie euskaltzainei. Diru-sarreraren aurreikuspena orain arteko informazioaren arabera egin da.

Ekarpen gehienak baieztaturik daude, eta, edonola ere, aurreikuspen errealistak egin dira. Sarrerak handitzeko aukerak ez dira oso ugariak, baina badirenak landu beharko dira, bai Herri Aginteen aldetik, bai erakunde pribatuen partaidetza sustatuz eta Fundazioaren sorrerarekin. Zuzendaritzak ustezko ekarpen berriok kudeatu eta aldian-aldian Osoko bilkurari informazioa emanez.

2009-2014 arteko epealdian izandako diru-sarreraren bilakaera ere erakutsi du, grafiko batean. Ondoren, galdu eta irabazien sarrerak erakutsi ditu, xeheki desglosatuz. Gauza bera egin du gastuekin ere, hor pertsonal gastuak, ondasun arrunt eta zerbitzuak, argitalpenak, ibilgetuen amortizazioa, fidantza gastuak, eta egitasmoak xeheki azalduz. Azkenik, Galdu eta Irabazietan aurrekontu orekatuak izan behar direla esan du, hots, gastuak = diru-sarrerak. Halere, gastuak diru-sarrerak baino 100.000 euro handiagoak direnez, egokitzapenak egin beharko dira gastuetan, sarreretan edo bietan, eta Zuzendaritzak urtean zehar lan egin beharko du, ez baita zeregin erraza izanen.

Azkenik, 2014ko aurrekontua behin-behinekoz onartzea eskatu dio Zuzendaritzak Osoko bilkurari. Halaxe egin da Osoko bilkuran, behin betiko onarpenera eman arte. Halaber, aurrekontua findu eta hobetzeko asmoz, ekarpenak egiteko aldia ireki da. Horiek horrela, ekarpenak egiteko epea otsailaren 21ean amaitzen da. E. Osak eskatu du ekarpenak zehatz egiteko, aurkezturiko txostenaren orrialdearen aipamena eginez.

4. Euskaltzaindiaren «Historia» egitasmoak emanikoa aurkeztu.

Hasteko, J. L. Lizundiak Iasmina Gorroño egitasmoan jardun duen teknikaria batzar-gelara sartzeko eskatu du. Ondoren, egitasmoaren gidoia pantailan agertu

eta orri batean ere testua banatu da euskaltzainen artean. J. L. Lizundiak laburki aurkeztu ditu proiektuaren nondik norakoak: hastapenak, aholkulari izan direnak eta barruraturiko helburua, hots, Akademiaren historia, 1918tik 2004ra bitartekoa, egitea. Lanak izango dituen kapituluak eta edukiak, eta, horretarako, nolako dokumentazio idatzia eta ahozko lekukotasunak erabiliko diren aipatu ditu. Ondoren, hitza I. Gorroñori eman dio, eta beronek materialen kudeaketaz eta lan metodologiaz hitz egin du. Akademiaren jardunaldiari dagokionez, R. M. Azkuerengandik hasita, ondorengo euskaltzainburuen agintaldietan egindako pauso nabarmenenak gogoratu ditu, bai eta garai horietako euskaltzain aipagarrienak ere: F. Krutwig, K. Mitxelena, L. Villasante, Txillardegia, G. Aresti, kasu. Batzar eta jardunaldi erabigarrienak ere aipatu ditu (Arantzazu eta Bergarakoak, adibidez).

Era berean, Euskaltzaindiak bere historian zehar izandako egoitzak eta ordezkariak gogoratu ditu, lan egiteko barne banaketaz, sail ezberdinez, jardunaldi nagusi, ospakizun, mendeurren, sarrera-hitzaldi, omenaldiez, etab., bai eta batzorde eta azpibatzerdeen lan berezietan ere. Egin duen aurkezpena, idatziz euskaltzain guttietan helaraziko zaiela esan du.

Ondoren, euskaltzainei galderak egiteko aukera eman zaie, hala nahi izanez gero, itaunak egin ditzaten. Tx. Peillenek frantsesezko dokumentuez galdetu du, ea non diren jakin nahirik. A. Urrutiak, bere aldetik, trantsizio aldiaren Euskaltzaindiaren onarpenarekin loturiko jatorrizko dokumentuak Alcalá de Henaresen egon daitezkeela esan du. Izan ere, hantxe dago ministerioko artxiboa. P. Zabaletak esan du, oro har, gerraurreko aipamenak oso laburrak izaten zirela, eta mereziko lukeela ikertzea. Inguruabar horretan, Arturo Campionek utziriko ondarea, egun Nafarroako Gobernuaren esku dagoena, eta gaur arte ukitu gabe dagoena arakatzea interesgarria izan daitezkeela azpimarratu du. J. L. Lizundiak arrazoia eman dio.

Amaitzeko, euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie bai J. L. Lizundiari eta bai I. Gorroñori ere, eta galdetu du ea material horiek Azkue Biblioteka eta Artxibora noiz transferituko diren. Ondorioz, material horren transferentzia egitean, idazkariordearen eta kudeatzailearen esku-hartzea eskatu du.

5. Baionako Osoko bilkuran abiatutako gogoetaldia.

Euskaltzainburuak adierazi duenez, Baionan eginiko Osoko bilkuran harturiko erabakiak betetzeko asmoz, Zuzendaritzak Gramatika batzordeko buruari eta idazkariari, Hiztegi Batuko lantaldeko arduradunari eta Onomastika eremuko buruari ohar bana bidali die gogoetaldiaren berri emanez. Guztiek onartu dute gogoetaldian parte hartzea, eta bakoitzetik parte hartuko dutenak ere finkatu dituzte. A. Urrutia

euskaltzainburua, X. Videgain buruordea eta A. Arejita Iker sailburua joango dira bileretara, Zuzendaritzaren izenean.

Gramatika batzordetik hastea erabaki da Zuzendaritzan. Hortaz, otsailaren 4an, bilkura egingo da eta gogoetaldiari hasiera emango zaio. Egiten diren urratsen berri aldiro emango zaio Osoko bilkurari.

Era berean, Ibon Sarasolak 2013. urtearen bukaera arte Euskaltzaindiarekin *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak* izeneko egitasmoa zuzentzeko izan duen kontratua hemendik aurrera ez berritzeko asmoa Zuzendaritzari idatziz adierazi ondoren, egitasmo horren zuzendaritza berri behar izan dela esan du euskaltzainburuak. Horretarako, Zuzendaritzak, 2014ko urtarrilaren 22an eginiko bilkuran, 2014. urtean, Andoni Sagarna euskaltzain osoa eta Gipuzkoako ordezkaria dena proposatzen du egitasmoaren zuzendari izateko. Halaber, A. Sagarnari laguntzeko, Hiztegi Batuko lantaldeko burua den Miriam Urkia euskaltzain urgazlea arduradun gisa eta, 2013ko martxoa arte, Hiztegi Batuko lantaldeko arduradun izan den Jose Antonio Aduriz euskaltzain urgazlea aholkulari lanetan jardutea ere proposatu du. Amaitzeko, egitasmoan orain arte aritu diren teknikariek ere lanean segituko dute. Proposamen guztiak berretsiak izan dira Osoko bilkuran.

6. Esku artekoak.

6.1. HABE erakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzahitzarmena. Jarraipen batzordean Euskaltzaindiak izango dituen bi ordezkariak izendatu ditu Zuzendaritzak, 2014ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran. Honako hauek: Joan Mari Torrealdai euskaltzaina eta liburuzaina, eta E. Osa idazkariordea.

6.2. Aurkezpenak. Otsailaren 15ean, larunbata, goizeko 10:30ean, Mauleko Herriko Etxean, Jean-Baptiste *Battitu* Coyosek paraturiko *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri* liburuaren aurkezpena egingo da.

6.3. Hurrengo bilkura. Otsailaren 28an, goizeko 10:00etatik aurrera, Osoko bilkura egingo da Donostian, Foru Aldundian.

7. Azken ordukoak.

7.1. Euskaltzaindia D ereduaren alde Nafarroan. S. Aleman, A. Iñigo, P. Salaberri eta P. Zabaleta Nafarroako euskaltzainek, berek sinaturik, testu bat aurkeztu dute, Nafarroako gurasoak beren haurrak D ereduan matrikula ditzaten bultzatzeko eta eredu horretan ari direnen lana eskertzeko. Matrikulazio-aldia ireki berri denez gero, komenigarri iritzi diote jendearen aurrean euskarazko irakaskuntzaren aldeko agiri bat azaltzeari. Testua A. Iñigok irakurri du.

P. Salaburu oinarriz testuaren alde dago. Baina uste du holako egoerak, edo are txarragoak, badirela beste tokietan ere, eta beharbada hori azertu beharko da. Ipar Euskal Herria aipatu du. Halere, ez dauka garbi. A. Urrutiak uste du Euskaltzaindiak Nafarroako gurasoei zorionak helarazi beharko lizkiekeela, beren orain arteko jarreragatik adorea emateko. J. L. Lizundiak, bere aldetik, esan du gogorarazi beharko litzatekeela Euskaltzaindiari herri aginteez aitoruriko zeregin, Errege Dekretuak eta indarrean dagoen araubidean jasotzen dena, zein den. Sagrario Alemanek zalantza izan du, ea testuan Nafarroa ala Euskal Herri osoa aipatzea komeni ote den. E. Osak uste du hoberena litzatekeela Nafarroa bakarrik aipatzea. Gizarteari zuzendua denez gero, ahalik eta erarik sinpleenean eta adierazkorrenean.

P. Zabaletak «...euskarazko irakaskuntza Gaztelania irakasgaiarekin...» aipamena jasotzea komeni den zalantza agertu du. Horrexetarako, Kataluniako murgiltze-ereduari buruz atera den epaia izan du hizpide. M. Azkaratek esan du, Euskal Herrian ez bezala, Katalunian ez dagoela soilki gaztelaniaz (A eredu) ikasteko aukerarik, eta beraz, P. Zabaletaren erreparoa ez genukeela eduki behar.

Beraz, testua honela utzi da: «Euskaltzaindia D ereduaren alde Nafarroan: Nafarroako irakaskuntzan iragarri da datorren 2014-15 ikasturtean izena emateko epea. Urtero bezala, gurasoek aukera izanen dute beren umeak D ereduari matrikulatzeko, bai irakaskuntza publikoan, bai ikastolen sarean. Izan ere, ikastetxe horiek aukera paregabea eskaintzen diote Nafarroako gizarteari, gurasoei bereziki, nafar guztiona den hizkuntza eta kulturatik abiatuz, beren seme-alabak mundu zabalera begira hezi ahal izateko.

Euskara babestea, gizartearen maila guztietara zabaltzea eta erabilera sustatzea Euskaltzaindiaren zeregin berariazkoak dira. Hori horrela, Akademiak Nafarroako haurren gurasoak xede horiekin bat egitera gonbidatzen ditu eta beren seme-alaben heziketarako D eredu (euskarazko irakaskuntza gaztelania irakasgaiarekin) hautatzera animatzen. Aldi berean, zorionak ematen dizkie eredu hori hautatzen duten gurasoei, bai eta eskerrak eta babes osoa ere, irakaskuntza publikoan zein ikastolen sarean urte luzez, zeregin horri osoki emanak eta emaitza bikainak lortuz lanean aritu diren eta ari diren irakasleei eta gainerako langileei».

Gaurko Osoko bilkuraren ondoren K. Rotaetxeren hilberri txostena irakurri behar denez gero, testua datorren astean, astelehenean zabalduko dela adierazi da.

7.2. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako soberakinez. J. M. Torrealdai bibliotekari akademikoak Akademiaren bibliotekako soberakinak, hots, liburu eta

material errepikatuak, euskaltzainen artean banatzeko eskaintza egin du. Horretarako, interesdunek aski dute beren identifikazio zenbakia idaztea txartel batean. Epea otsailaren 28ra artekoa da.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, eguerdiko 12:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2014ko urtarrilaren 31n

Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzainaren
hilberri txostena

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, eguerdiko 12:30ean, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, aurreko urtean hil zen Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kalzakarta, Joseba Lakarra, Jose Luis Lizundia, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Pello Salaburu, Ana Toledo, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Euskaltzain urgazleak: Xabier Altzibar, Rikardo Badiola, Sebas Gartzia, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea eta Jacinto Iturbe.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Jose Miguel Rincón Karmele Rotaetxeren alarguna, eta haren senide eta hurbi-lekoak Jon Rotaetxe, Miren Bareñano, Ana Allende eta Maite Ariza.

Ana de Castro Rubalcaba Bizkaiko Foru Aldundiko Euskarazko zuzendari nagusia.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza Xabier Altzibar euskaltzain urgazleari eman dio, Karmele Rotaetxe 2013. urtean hildako ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena irakurri dezan.

Karmele Rotaetxe Bilbon jaio zen, 1932ko urtarrilaren 17an. Espainiako Gerraren ondorioz, familia Frantziara erbesteratu zen, eta han eman zuen haurtzaro eta

gatzaroaren zati bat. Aurreneko ikasketak ere han egin zituen, eta inoiz ez zion ikasteari utzi. Batxiler ikasketak amaitu, unibertsitatera joateko dirurik ez, eta lanean hasi behar izan zuen. Azkenean, 30 urte zituela, 1962an, Deustuko Unibertsitatean hasi zen Frantses Filologia ikasten eta frantsesa irakasten.

Tesina Simon de Beauvoir-i buruz egin zuen, eta hautuak Rotaetxeren nortasunaz zertxobait azaltzen du. Izan ere, Xabier Altzibarrek azaldu bezala, aita Coloma jesuitari buruzko tesina egiteko proposatu zioten, berak ezetz esan eta *Simone de Beauvoir*, *nobelagile* izeneko lana burutu zuen. «Simone de Beauvoir aukeratzea –azpimarratu du Altzibarrek– ez zen batere ohikoa garai haietan, ohikoa ez zen legez emakume batek unibertsitatean ikastea: bospasei baino ez ziren izango ikasle emakumeak Deustuko unibertsitatean. Karmelerena izan zen lehenengo tesina Frantses Filologian, eta Bikain kalifikazioa jaso zuen. Bere erabaki ausartarekin Karmelek unibertsitatea aurrerabidean jarri zuen eta erakutsi emakumeak ez zirela bigarren mailakoak».

«Euskarak eta irakaskuntzak aldatu zuten Karmeleren bizitza», esan du X. Altzibarrek gaurko mintzaldian. Gurasoak ez ziren euskaldunak, eta Rotaetxe euskaldundu zen buruz eta bihotzez; harrezkero, euskararen irakaskuntza eta ikerkuntzan eman du bizitza osoa, eta horretan langile nekaezina izan da hil arte. Patxi Altunarekin batera, euskara irakasten hasi zen Deustuko Unibertsitatean, euskarazko lehen eskolak izan zirelarik.

Irakaskuntza, berriz, euskal kulturarekin lotu zuen. Gauzak horrela, Karmele Rotaetxe euskal kultura ekitaldietara joaten zen, ez zuen huts egiten, eta orduan bezala 30 urte geroago ere ez, Xabier Altzibarren hitzetan.

1977an, Koldo Mitxelena zuzendutako *Estudio estructural del euskera de Ondarroa* izeneko tesiari esker doktoretza lortu zuen, Salamancako Unibertsitatean.

1977tik aurrera, euskara klaseak ematen hasi zen, Bilboko Unibertsitate Autonomoan. Ondoren, Leioako Kazetaritza Fakultatean lan egin zuen, euskara eskole-tako koordinatzaile. 1979an, Gasteizko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea abian jarri zen eta bertan jardun zuen Rotaetxek. 1987an, gainera, Hizkuntzalaritza Orokorreko katedra eskuratu zuen. Gasteizko Filologia Fakultatean ia 20 urtetan irakasle izan zen. 2001. urteaz geroztik, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle emeritua zen.

K. Rotaetxe –esan du Altzibarrek– ikertzailea izan da, batez ere. Ikerturiko gai nagusiak euskal hizkuntzalaritza, tipologia eta soziolinguistika arlokoak dira eta gai

horietan jardun du etengabe 30 urtez. Era berean, gure hizkuntzaren ordezkari nabarmenatariko bat izan da kanpoko ikerketa foroetan, X. Altzibarren aburuz.

Tesi zenbaiten zuzendari, nazioarteko hizkuntzalari-elkarte, kongresu eta proiektuetan partaide, Eusko Ikaskuntzako kide, eta europar proiektu batzuetan partaide izan zen. Ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak 2004ko azaroaren 26an, Gasteizen eginiko Osoko bilkuran. Testuinguru horretan, Euskaltzaindian egindako lan batzuk gogora ekarri ditu Xabier Altzibarrek: Euskaltzaindian Euskalariekin Harremanak delako batzordean kontseilari izan zen (1981-1983), Dialektologia batzordeko kide (1981-1989), Euskalkien Ikerketa azpibatzerdekoa (1989-1995) eta Sustapen batzordeko aholkularia azken 6 urteetan (2007-2013). Gramatika batzordeko kidea izan zen 28 urtez (1981-2009), eta Gramatika batzordean 6 liburuki lantzen eta argitaratzen parte hartu zuen.

Hala, bada, «makume azarri eta behargina izan da, kultura ekintzailea eta irakaskuntzan bidegilea, eta euskararen azterketari maila zientifikoa eta ikuspegi kritikoa ematen ahalegindu izan da beti», Altzibarrek esan duenez.

Hori izan zen Karmele Rotaetxe, Xabier Altzibarren iritziz.

Agur-hitzak euskaltzainburuak esan ditu. Bere esanetan, Karmele Rotaetxe «urte luzeetan euskalgintzaren lekukoa eta partaide izan da. Euskara bera izan du bere bizitzaren ikur nagusia. Eta bera gogoratzen dugunean, belaunaldi oso bat gogoratzen dugu Bilbon... eta Euskal Herri osoan. Bere burua euskaldundu zuen belaunaldi bat, euskararen alde lan nekaezina egin duena eta euskarari aurrerabidea eman dion belaunaldia».

Euskaltzainburuaren hitzekin bukaera eman zaio Euskaltzaindiak Bilbon gaur egin duen Ageriko bilkurari, eguerdiko 13:20 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria